



# **GOBERNU BILERA**

Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2018ko azaroak 20**

**Vitoria-Gasteiz, 20 de noviembre de 2018**

**ADIERAZPEN INSTITUZIONALA AZAROAREN 25EKO “EMAKUMEEN  
AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA” DELA  
ETA**

Azaroaren 25a “Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna” dela eta, Eusko Jaurlaritzak bere gaitzespen irmoa adierazten du indarkeria sexistaren adierazpide guztien aurrean, eta bere konpromisoa emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko berdintasunezko gizarte bat eraikitzeko.

Gutziz beharrezkoa da gogoratzea emakumeen kontrako indarkeriaren erroa emakume eta gizonen berdintasun eza dela, eta beraz, emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko gizarte bat eraikitzeko, berdintasuna landu behar dugula. Horregatik esaten diegu BAI indarkeria sexista prebenitzeko beharrezkoak diren berdintasun politikei: BAI esaten diogu neska mutilek genero estereotipo eta rolek ezarritako mugarik gabe euren bizitza proiektuak garatu ahal izateari; BAI esaten diogu errespetuan oinarritutako harremanak sustatzeari; BAI esaten diogu emakumeen ahalduntzeari; BAI esaten diogu hiritar guztiak eta bereziki gizonak berdintasunarekin inplikatzeari. Hitz batean, BAI esaten diogu Berdintasunari, ez baitago berdintasuna sustatzea baino tresna eraginkorragorik emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko gizarte bat eraikitzeko.

Gaurko egunean garrantzitsua iruditzen zaigu, bestetik, eskerrak ematea egunero indarkeria jasan duten emakumeen arretaz eta babesaz arduratzen diren arlo ezberdinetako profesionaleri, eta bereziki, azpimarratu behar dugu emakumeak artatzen dituzten profesionalen prestakuntzan lan egiten jarraitzearen garrantzia, atentzio horren bitartez emakumeak lagundu ahal izateko euren erreparazioan eta ahalduntzean.

Jaurlaritzak gogoratzen du gizarte osoaren inplikazioa funtsezkoa dela emakumeen aurkako indarkeriari heltzeko, eta berresten du bere sailak arlo horretan Emakunderekin inplikatzen eta lan koordinatua egiten jarraituko dutela.

Azkenik, herritarrak animatzen ditu emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean beren gaitzespena erakutsi dezaten, eta indarkeria jasan duten emakumeei euren babesa erakutsi diezaieten azaroaren 25erako hainbat herri eta hiritan deitu diren mobilizazioetan parte hartuta.

## Lehendakaritza

### JAURLARITZAK 35,5 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU GARAPENERAKO LANKIDETZAKO 90 PROIEKTUTARA

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio gaur euskal GGKEek aurkeztutako garapenerako lankidetzako 90 proiekturi laguntzak emateari. Guztira 35,5 milioi euro batzen dituzte.

Lankidetzaren proiektuetarako laguntzak Eusko Jaurlaritzaren jarduketaren ardatz nagusia dira arlo horretan eta horietara zuzentzen da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak kudeatzen dituen funtsen zati handiena.

Laguntza horiekin hiru modalitatetako proiektuak finantzatu dira.

- 1. Garapenerako lankidetzaren proiektuak**, hegoaldeko herrialde pobretuetan pobrezia aurkako borrokarako laguntzak. Guatemala eta Kolonia izango dira proiektu gehien bilduko dituzten herrialdeak. Modalitate honetara bideratzen da laguntzen zati handiena, 62 proiektutara zuzendutako 29,2 milioi euro inguruko zenbateko batekin.
- 2. Ekoizpen-garapenerako, prestakuntzako eta laguntza teknologikoko proiektuak**, hegoaldeko herrialde pobretuetan pobrezia aurkako borrokarari zuzenean lotuak. Modalitate honetara milioi bat euro inguru bideratzen da 3 proiektutarako.
- 3. Garapenerako hezkuntza-proiektuak**, Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatutakoak munduan desberdintasunak sortzen dituzten kausen ulermena sustatzeko eta herritarren inplikazioa eta konpromisoa pizteko egungo gizarte-ereduen eraldaketarekin. Modalitate honetan 25 proiektu onartu dira eta 5,3 milioi euro inguru bideratuko dira horietara.

Laguntza horien hartzzaileak euskal GGKEak dira, edo hegoaldeko herrialdeetako erakunde eta mugimenduen eskutik lan egin eta Euskadin ordezkariak dutenak. Bi urteko iraupena izango duten proiektu bakoitzerako diru-laguntzak ez dira 600.000 eurotik gorakoak izango.

Gaur egun, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak 300 proiektu inguru finantzatu ditu mundu osoan. Horietako gehienak, Euskadin ez ezik, Perun, Bolivian, Kolonian eta Ekuadorren kontzentratzen dira, Hego Amerikan; Guatemalan, El Salvadorren eta Kuban, Erdialdeko Amerikan; Kongoko Errepublika Demokratikoan, Senegalen eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoan, Afrikan; eta Indian eta Palestinan, Asian.

## Lehendakaritza

**235.269 €-ko LAGUNTZA CEARentzat OÑATIKO LARRAÑA ETXEA  
HARRERA-ETXEAN DAUDEN ETORKINEI ARRETA EMATEKO**

Gobernu Kontseiluak CEAR Euskadiri 235.269 euroko diru-laguntza esleitzea onartu du, Oñatiko *Larraña Etxea* harrera-etxean dauden eta asilo-eskaera egin duten pertsoneri arreta eman, orientatu eta laguntza emateko.

Gaur emandako laguntza nazioarteko babesaren duten edo eskatzen duten pertsona eta familien beharrezan aurre egiteko da, baita arrisku handian dauden pertsona etorkinentzat ere, haiek paseko etorkinei arreta emateko ohiko “larrialdiko babes-neurrietatik” bazter geratu direnean.

Zentro hori Eusko Jaurlaritzaren ekimenez jarri zen abian, gizatalde horietako pertsonen uneko babesgabetasunari erantzun bat ematearren, haien beharrezan estaldura emanez; bitartean, haien egoera eta interesekin bat datozen aukera bideragarriak eta egonkorak bilatzen dira.

*Larraña Etxea* harrera-etxeak joan den irailean ireki zituen ateak, eta 100 pertsonarentzako hasierako edukiera du. Bertako egonaldia hiru hilabetekoa da, nahiz eta irizpide teknikoaren arabera, hura laburtu edo luza daitekeen.

Zentroko kudeaketaren zuzendaritza Euskadiko Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordea-CEAREk eta Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak eramanen dute koordinatuta, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin komunikazioan.

## Gobernantza Publiko eta Autogobernua

### **EUSKO JAURLARITZAK AUZITEGIEI BILBOKO ZABALBIDE KALEAN UDAL LIZENTZIARIK GABE ALTXATUTAKO ETXOLA BAT ERAISTEKO ESKATU DIE**

- **Etxola Zabalbide kaleko 102 eta 106B zenbakien arteko lursail batzuetan dago, eta lursail horiek Eusko Jaurlaritzarenak dira**

Gobernu Kontseiluak baimena eman du, gaur, errekurtsua jartzeko auzitegien aurrean, legez kontra okupatu diren Eusko Jaurlaritzaren lursail batzuetan udal-lizentziarik gabe eraikitako etxola bat hustu, eraitsi eta berreskuratzeko. Lursailek 3.484,98 metro koadro dituzte eta Bilboko Zabalbide kaleko 102 eta 106B zenbakien artean daude.

Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak, baterako jarduketa koordinatu batean, eraikuntzak Bilboko Begoña auzoan urtebete baino gehiago inolako lizentziarik gabe daramala egiaztatu dute. Egileak identifikatu eta bi erakundeek egileei leku hori uzteko zenbait eskaera egin ondoren, orain hura okupatu duten pertsoneri auzia jartzea erabaki dute eta, horretarako, errekurtsua aurkeztea Bilboko lehen auzialdiko epaitegiaren aurrean.

## Gobernantza Publiko eta Autogobernua

### IVAP-EK BERRITU EGIN DITU ARKAUTKO, HEZKUNTZAKO ETA OSAKIDETZAKO FUNTZIONARIOEN PRESTAKUNTZA HITZARMENAK

- **Sinatutako hitzarmenak eraginkorrak izango dira 2018. urte honetako azken hiletan, eta sail horietako profesionalei prestakuntza ematera bideratuko dira**

Gobernu Kontseiluak baimena eman du, gaur, [Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen \(IVAP-HAEE\)](#) hiru hitzarmen berritzeko, Osakidetzarekin, Hezkuntza Sailarekin eta Arkaute - Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin. Helburua hiru erakunde horietan lan egiten duten langile publikoen planak eta prestakuntza-programak berritzea da, bai eta horien finantzaketa arautzea ere.

- **Hezkuntza** Sailarekin hitzarmena: irakasleei prestakuntza emateko da, eta gehienez 525.000 euroko zuzkidura izango du.
- **Osakidetzarekin** hitzarmena: pertsonal sanitarioari eta ez-sanitarioari zuzenduta, dela osasun-eremuan, dela osasun-kudeaketako eta -administrazioko arloetan. Horien prestakuntzarako bideratzen den zuzkidura gehienez 537.000 eurokoa izango da.
- **Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin** hitzarmena: langile publikoei zuzenduta, prestakuntza Arkauteren eskumenekoa denean. Sinatutako prestakuntzak gehienez 230.000 euroko zuzkidura izango du.

Langileen prestakuntzaz gainera, hitzarmenek honako ekintza hauek ere jasotzen dituzte:

- Prestakuntza-edukiak diseinatzea eta/edo prestatzea.
- Ikaskuntza-sareak ezartzea, aldi baterakoak edo iraunkorrak.
- Irakaskuntzako materiala diseinatzea, prestatzea eta argitaratzea, prestakuntzan erabiltzen den edozein euskarritan.
- Erakundeak garatutako prestakuntzaren inguruan aprobetxamenduaren, transferentziaren edo inpaktuaren ebaluazioarekin lotura duten ikasketak.

## IVAP

[Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak \(IVAP-HAEE\) 2019an 19,6 milioi euroko](#) gastu-aurrekontua kudeatuko du. Aurrekontuaren zati handiena Euskadiko administrazio publiko guztietako langileen prestakuntzan eta euskalduntzean inbertitzen du. Zehazki, [IVAPen](#) prestakuntza-zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren eta bere erakunde instituzionalen zerbitzura dauden langileen sarrerako prestakuntza-planak diseinatu, kudeatu eta ebaluatzen ditu, posturako eta lanbide-karrerarako.

## Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

### **2 MILIOI EURO DURANGOKO ARAMOTZ AUZOAN HIRI-BERRONERATZEKO JARDUNA EGITEKO**

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Lurralde Politika, Ingurumen eta Etxebizitza Sailak Durangoko Udalarari Aramotz auzoa birgaitzeko eta bertako hiri-berroneratzea egiteko 2.040.000 euroko zuzeneko diru-laguntza emateari. Diru-laguntza datozen hiru urteetan emango da, 2011. urtean landutako auzo kalteberen inbentarioan jasota dagoen Durangoko eremu horretan esku-hartzea egiten den bitartean.

Aramotzeko jarduna Iñaki Arriolak zuzendutako Sailak bultzatu duen eta Autonomia Erkidegoko auzo eta eremu kalteberen hiri-berroneratze integrala egiteko lanak biltzen dituen 2017-2022 aldiko Lurralde Inbertsioko Plan Integratuan txertatuta dago. Hasiera batean, Planak 17 auzotan esku hartzea proposatzen du, horretarako 50 milioi euroko inbertsioa aurreikusi da, eta eraginpean hartutako udalekin lankidetzak estuan jardungo da.

Eraikinak kontserbatzeko arazoak eta egoera sozioekonomiko ezegonkorra dituzten eremu horietan jarduteko proiektuak abian dira dagoeneko honako eremu hauetan: Txabarri-El Sol (Sestao), Koroatzea (Gasteiz), Txomin Enea (Donostia), Txonta (Eibar) eta Otxarkoaga (Bilbo). Datozen hilabeteetan, beste batzuk jarriko dira abian, hiru lurraldetara hedatuko direlarik. Programa pilotu horien barruan, eraikin zaharrak irisgarritasunari eta energia-efizientziari lotutako irizpideekin birgaitzeaz gain, auzoetako egoera sozioekonomikoa herritarrak hiri-berroneratzeko eragiketetan inplikaturiko dituen ikuspegi integral baten bidez hobetuko da.

Aramotzen kasuan, joan den mendeko 50eko eta 60ko hamarkadetan egindako eraikin multzo batean egingo da esku-hartzea, eta, horrekin batera, gizarteratze- eta enplegu-plan bat egin eta hirigintza-ingurunea hobetuko da, Aramotz "ekoauzo" bihurtzeko.

## Ogasun eta Ekonomia

### **GOBERNUAK JARRAITZEN DU ZERGA IRUZURRAREN AURKAKO BORROKAN LANKIDETZAN JARDUTEAREN ALDEKO APUSTU EGITEN ETA "TICKETBAI" PROIEKTUAREN EZARPENEAN AURRERA EGITEN**

- **Proiektua iruzurraren Aurkako Borroka Planean sartzen da, eta foru-aldundiekin eta Nafarroako Zerga Ogasunarekin elkarlanean egiten da**

Eusko Jaurlaritzak aurrera egin du gaur "Ticketbai" proiektuaren garapen-prozesuan, baimendu egin baita hitzarmen bat sinatzea; horren bidez, salmenta-puntuen terminalen edo kutxa erregistratzaileen kontrol telematikoaren sistemak ezarri ahalko dira, zerga-iruzurra antzemateko.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren, Nafarroako Zerga Ogasunaren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundien arteko hitzarmenak Ticketbai/ Ticketsi-Bai fakturazio- eta kobrantza-sistemak kontrolatzeko tresnak aztertzeko eta ezartzeko proiektua garatzeko baldintzak ezartzen ditu.

2016an, Euskal Herriko Zerga Iruzurraren Aurkako Borrokarako Baterako Planak, lehentasunezko jardun-ildoan artean, eskudituaren erabilera intentsiboa egiten duten jarduera-sektore batzuetan kutxa erregistratzaileetan kontrol-sistemak ezarri ahal izateko proiektua abian jartzea jaso zuen.

Bost administrazioek, 2016an, lantaldea eratu zuten, eta lantalde horren lehen helburua aurretik aipatutako helburua betetzeko kontrol-tresnak ezartzeko aukera aztertzea izan zen. Aldi berean, proiektuaren identifikazio-izendapena TicketBAI / TicketSI-BAI izatea adostu zen.

Hurrengo ekitaldietan, proiektu horrek aurrera jarraituko duela berretsi da, eta zehaztu da haren diseinuan aurrera egingo dela eta, besteak beste, egokientzat jotzen den soluzio teknologikoaren hautaketa eta hura ezartzeko beharrezko araudi-aldaketen proposamena zehaztuko direla.

Proiektua garatzeko, zenbait jarduketari heldu beharko zaie batera, bai administrazio parte-hartzaileen beraien baliabideen bidez, bai kanpo-baliabideen bidez. Horrela, komenigarritzat jo da laguntza teknikoko eta aholkularitzako zerbitzua kontratatzea, zehazki soluzio teknologiko eraginkorrena zehazteko.

Hitzarmenak aurreikusten ditu erakunde bakoitzak proiektuaren garapen-prozesuan egin beharreko jarduketak gauzatzen eta finantzatzen nolako partaidetza-baldintzak izango dituen eta, era berean, proiektua sinatu aurretik egin diren eta proiektuan sartzen diren jarduketaren finantzaketa-baldintzak



zehazten ditu. Horrela, administrazio horien artean jarduketa horiek abian izateko lankidetzaz, elkarlana eta koordinazioa arautuko dituen tresna izango da.

Hitzarmena sinatzen duten bost administrazioen partaidetza adosten den eta finantzaketa partekatua duten jarduketetan, horiek beren aurrekontuen kargura honako zenbateko hauek hartuko dituzte beren gain, kostu osoaren gainean:

-	EAEko administrazioa	kostu osoaren % 20
-	Nafarroako Zerga Ogasuna	kostu osoaren % 20
-	Foru-aldundiak	kostu osoaren % 60
o	Arabako Foru Aldundia	kostu osoaren % 9,864
o	Bizkaiko Foru Aldundia	kostu osoaren % 30,222
o	Gipuzkoako Foru Aldundia	kostu osoaren % 19,914

Nafarroako Zerga Ogasunaren partaidetza ez duten jarduketetan, administrazio sinatzaileek beren aurrekontuen kargura honako zenbateko hauek hartuko dituzte beren gain, kostu osoaren aldean:

-	EAEko administrazioa	kostu osoaren % 25
-	Foru-aldundiak	kostu osoaren % 75
o	Arabako Foru Aldundia	kostu osoaren % 12,3300
o	Bizkaiko Foru Aldundia	kostu osoaren % 37,7775
o	Gipuzkoako Foru Aldundia	kostu osoaren % 24,8925

Egun arte EAEko administrazioaren diru-kutxetarako gehienez 43.557,10 eurokoa da kostua. Foru-aldundietarako kostua 133.653,18 eurokoa da eta Nafarroako Zerga Ogasunerako 38.927,56 eurokoa.

## Hezkuntza

### **3,5 MILIOI EURO UDAL HAUR ESKOLEN MANTENURAKO**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2018-19 ikasturtean 0 eta 3 urte arteko umeentzako haur eskolen titular diren toki korporazioei diru-laguntzak ematen dizkien Agindua onartu du. Hezkuntza Sailak 3,5 milioi euro bideratzen ditu deialdi honetara, eta diru-laguntzak aipaturiko haur eskola horiek mantentzeko kostuak finantzatzeko laguntza gisa emango dira, izan ere, haur eskola hauek eskaintzen duten zerbitzua funtsezkoa gertatzen baita euskal familia askorentzat, familia bizitza eta lan bizitza bateragarri egin ahal izateko.

Hezkuntza Sailak eta Euskadiko Udalek –laguntza hauek xede dituzten haur-  
eskolen titular badira, beti ere-, lankidetzeta-hitzarmenak garatuko dituzte deialdi  
hau egoki kudeatzeko. Diru-laguntza hauen helburua da kostuak murriztea  
batetik, eta zero eta hiru urte arteko haurrentzako udal-titulartasuneko haur-  
eskolen gaur egungo eskaintza sendotzea, bestetik. Era berean, ahaztu ezin  
den beste helburu bat da ikasleei kalitatezko hezkuntza eskaintzea ere,  
hezkuntza-maila horiei dagozkien gaitasunak eta ezagutzak jasotzea  
ahalbidetuko dien hezkuntza. Udal bakoitzak jasoko duen ekarpen ekonomikoa,  
bere titulartasuneko haur-eskoletan okupatutako plazen arabera zehaztuko da.  
Euskadin, euren titulartasuneko 17 haur-eskola dituzten 13 udalerrri daude  
egun. Haur-eskola hauek ez daudenez Haurreskolak Partzuergora bildurik, diru-  
laguntza hauen onuradun izan daitezke.

## Hezkuntza

### **500.000 EURO EKIPAMENDU ZIENTIFIKOA ESKURATZEKO LAGUNTZATAN**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2019 urtean ekipamendu zientifikoa eskuratzeko laguntzak ematen dituen Agindua onartu du. Laguntza hauek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea osatzen duten eragileei daude zuzenduak, UPV/EHU salbu. Deialdi honek 500.000 euroko diru-kopurua du.

Deialdia honen xedea da 2019an zehar ekipamendu zientifikoa erosi ahal izateko diru-laguntzak ematea, beti ere hauen kostua 18.000 eta 240.000 euro artekoa bada (BEZ gabe). Era honetan, deialdiak dituen bi helburu nagusiei erantzuten zaie: batetik, Euskadiko zientzia eta teknologia-ahalbideak areagotzea, eta bestetik, ikertzaile-taldeek arrakastaz eta gaitasunez parte hartu ahal izatea Europako ikerketa-espazioaren eraikuntzan.

Deialdi honetarako ekipamendu zientifikotzat hartzen da, I+G+b jarduerak garatu ahal izateko beharrezko den bitarteko fisikoen (ekipoen) multzoa.

Aipaturiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko kide dira, eta beraz, deialdiaren onuradun: Oinarrizko eta Bikaintasun Ikerketarako Zentroak (BERC); Unibertsitateetako zentro, departamentu, atal, institutu edo bestelako ikerketa unitateak, (UPV/EHUkoak izan ezik); Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (CIC); eta Teknologia Zentroak.

## Hezkuntza

### **970.000 EURO OINARRIZKO IKERKETAREN EDOTA IKERKETA APLIKATUAREN PROIEKTUETARAKO ETA IKERKETA ETA BERRIZTAPEN TEKNOLOGIKORAKO**

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, Hezkuntza sailburuaren agindu bat onartu du. Agindu horren bidez oinarrizko ikerketaren edota ikerketa aplikatuaren proiektuak 2019-2021 aldian gauzatzeko diru-laguntzak deitzen dira, baina baita ikerketa eta berriztapen teknologikorako laguntzak ere, Unibertsitatearen eta enpresaren artean 2019-2020 aldian egin beharreko jarduerak egiteko aurreikusitako fondoan kontura. Deialdi honek 970.000 euroko diru-kopurua du orotara.

Bi helburu nagusi ditu deialdi honek: alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Zientzia, Teknologia eta Berriztapen sistema indartzea, Hezkuntza Sailak kudeatuko dituen oinarrizko ikerketaren eta ikerketa aplikatuaren proiektu konkretuak gauzatzeko laguntzak emanez. Eta, bestetik, unibertsitateko eta teknologiko ikerketa-taldeen eta ekoizpen-sareko enpresen artean egon beharreko interakzioa sendotzea, kalitateko eta interes zientifiko eta teknologikoko ikerketa aplikatuaren edo teknologikoaren proiektuak egitearen bidez. Enpresentzat interesgarri gertatu beharko duten proiektu horiek, teknologia unibertsitatetik enpresara transferitzea edo prozesu edo produktuen mailan helburu berritzaileak lortzea ekarri beharko dute ondorioz.

Beraz, deialdi honen bidez ikerketa-proiektuak gauzatzeko diru-laguntzak bi lerrotan ematen dira:

-Diru-laguntza lerro bat, 690.000 euroko kopurua duena, 2019-2021 aldian oinarrizko ikerketaren edota ikerketa aplikatuaren proiektuetarako. Diru-laguntza horiek, halaber, bi modalitate dituzte: lehena, oinarrizko ikerketaren edota ikerketa aplikatuaren proiektuak organismo bakar batean gauzatzen sustatzera bideratutakoa, eta organismo desberdinetako ikerketa-taldeak proiektu berean sustatuko dituen, bigarrena.

-Beste diru-laguntza lerro bat, 280.000 euroko kopurua duena, ezagutza unibertsitatetik enpresetara transferitzeko ikerketa-proiektuetarako, enpresa horiei interesatzen zaizkien arloetan, 2019-2020 aldirako. Unibertsitate-taldeak, enpresako pertsonalaren parte-hartzearekin, gauzatu beharko ditu proiektuak; laguntzen duten erakundeetako ikertzaileek ere izango dute parte hartzeko aukera. Bigarren lerro honetan, parte hartzen duten enpresek proiektuaren kostu osoaren % 10 finantzatu beharko dute gutxienez.

Laguntza hauen onuradun izan daitezke Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarearen Erregistroan egiaztatuta dauden ikerketa-entitateak, hala nola: Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroak (BERC),

Euskadiko unibertsitate publikoko (UPV/EHU) nahiz pribatuetako ikerketa taldeak; Teknologia Zentroak; eta Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (CIC).

Deialdi honen bidez diruz lagundu ahal izango diren kontzeptuen artean daude: doktore ez den pertsonalaren gatuak, doktoreen pertsonal gastuak, inbentarioko materiala, material suntsikorra, edo proiektuaren garapenak eskatuta egin behar izan diren bidaien gastuak.

## Osasuna

### **EUSKO JAURLARITZAK ALDATU EGIN DU EUSKADIKO HILOTZEN OSASUNA ARAUTZEN DUEN DEKRETUA, EGOERA EPIDEMIOLOGIKO BERRIRA ETA OHITUREN ALDAKETETARA EGOKITZEKO**

- **Aurrerantzean, I. Taldeko gaixotasun infekziosoren batek eragindako heriotza izan duten pertsonen gorpuak ez dira zertan erraustu, lurperatzeko aukera ere egongo baita**

Eusko Jaurlaritzak onartu egin du 202/2004 Dekretua aldatzea; Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Sanitate alderdiei buruzko Erregelamendua onesten da. Aldaketa hori Gobernu Kontseiluan adostu da, gaur, eta helburua da sasoiko egoera epidemiologikora eta osasun-arriskueta egokitzea, bai eta gizarte-erabilera eta -ohituretan heriotzaren inguruan izan diren aldaketetara eta hileta-enpresek zerbitzuak emateko dituzten aurrerapen teknikoetara egokitzea ere.

Gaur egun, osasun publikoaren babesa aintzat hartuta, eta azken urteotan sortu diren gaixotasun infekziosoen testuinguruan, komeni da gorpuak I. Taldeko gisa kalifikatzen dituzten agente patogenoen bidez transmititutako gaixotasun infekziosoen zerrenda sinplifikatzea. Hala jaso da dekretu berrian, eta aurrerantzean erraustea ez dadila izan I. Taldeko gaixotasun infekziosoren batek eragindako heriotzaren ondoriozko gorpuen irtenbide bakarra eta, aurrerantzean, errausteko zein lurperatzeko aukera egotea, osasun publikoari kalterik eragin gabe eta hildako pertsonaren borondatea eta eskubideak errespetatuz, indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz.

Bestalde, aldaketak tanatopraxiako praktikak edo teknikak egiteko lanbide-profilei ere heltzen die; orain arte mediku fakultatiboak baino ez zuen egiten. Azken urteotan osasunaren lanbide-familiaren barruan sortu diren trebakuntza berriak kontuan hartuta, zabaldu egin dira lan hori egin dezaketen lanbide-profilak.

Azkenik, gorpua beilatzeko lekua dela eta, dekretuak kendu egin du lurralde-mugaketa, eta, beraz, hildakoaren etxean edo baimendutako beilatokietan egin ahalko da, kokapen geografikoaren mugarik gabe.

Azken batean, dekretu berriaren bitartez osasun-kontrolerako jarduketak beharrezko edo komenigarri egiten duten gertakari epidemiologikoen edo osasun publikoko gertakarien arabera egokitu nahi dira, baina hil denak bere gorpuarekin egin nahi zuena aintzat hartuta.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 68.000 EUROKO DIRU-LAGUNTZA ONARTU DU UEMA UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEARENTZAT, ADOSTUTAKO LAU PROIEKTU BABESTEKO**

- **Hezkuntza proiektu bat, hiru ikerketa-lerro, gazteentzako udalekuak eta komunikazio kanpaina bat diruz lagunduko dira**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak 68.000 euroko diru-laguntza zuzena onartu du, bere gaurko saioan, UEMArentzat (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea). Laguntza honen bitartez euskararen inguruko UEMAren jardura babestuko da eta Mankomunitate honen urteko programaren baitako lau proiektu bultzatu ahal izango dira, horiek guztiak euskal hiztunen dentsitate handia duten udalerrietan.

UEMAk herritarrek arlo guztietan euskaraz bizitzea posible izateko lan egiten du, eta bere jardura euskararen ezagutza % 70aren gainera duten udalerrietan sustatzen du. Eusko Jaurlaritzak zenbait ekimen adostu zituen UEMAekin 2018an garatzeko. Egitasmoak honako hauek dira:

- Udalerri euskaldunetako herritarrak ahalduzko hezkuntza proiektua.
- Ikerketa lerroak: 'Nola bizi dute Turismoa turistek udalerri euskaldunetan', 'Bi urteko haurren etxeko erabilera' eta 'Hitanoaren ikerketa'.
- 'Salto', udalerri euskaldunetako gazte udalekuak.
- 'Udalerri euskaldunen garrantzia' komunikazio kanpaina.

UEMA 1991. urtean jaio zen eta egun Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako 82 udalerri biltzen ditu. Mankomunitate honen helburuak hauexek dira:

- Udalerri euskaldunetan herritarrek egiten duten bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua euskaraz izan dadin bideak urratzea.
- Udalerri euskaldun guztiek bat eginik, euskara nagusi izango den eremua osatzea.
- Udalerri euskaldunen garapen sozioekonomiko eta soziokulturala bultzatzea.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 20.000 EUROKO DIRU-LAGUNTZA ONARTU DU ZINEUSKADIRENTZAT, NOKA MENTORING ETA CINE-REGIO EKIMENAK BABESTEKO**

- **Laguntza honen bitartez lagunduko dira Zinemaldiaren azken edizioan antolatu ziren jarduerak bi programa horien inguruan**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak, bere gaurko saioan, 20.000 euroko diru-laguntza zuzena onartu du Zineuskadi elkartearentzat, Noka Mentoring emakume zinegileentzako programaren eta Cine-Regio ekimenaren inguruan azken Zinemaldian antolatu ziren jarduerak babesteko. Lehenengo programaren bitartez, euskal emakume zinegileen pisua eta ikusgaitasuna indartuko duen formazio eta laguntza programa berri bat garatuko. Bigarrenik, Cine-Regioren helburua da eskualdeko zinemaren interesen alde egitea Europako erakundeen aurrean.

Zineuskadi euskal sektorea sustatzeko sortutako elkarte bat da eta honakoak dira bere bazkideak: Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, Euskal Irrati Telebista, Donostia Zinemaldia, Euskadiko Filmategia eta Euskadiko ekoizle elkarteak: IBAIA eta EPE-APV. Zinemaldiaren azken edizioan jarduera ezberdinak antolatu zituen Noka Mentoring eta Cine-Regioren inguruan.

Noka Mentoring ekimenaren bidez, mentoring eta laguntza pertsonalizatu programa berri bat jarriko da abian, zeinen bitartez hiru zinema-proiektu hautatuko diren, hirurak luzemetraiak, eta urtebetez, 12 mentoreen bidez, formazioa eta aholkua eskainiko zaien. Babes hori eskainiko duten mentoreak nazioarteko zinemagintza industriatik aukeratuak izango dira, euren prestigioa eta ibilbideagatik. Proiektu honen helburua da "kristalezko sabaia" apurtu eta emakumeei laguntza eskaintzea zinema-proiektuen garapenaren beren lehen esperientzietan. Zinemaldiaren azken edizioan Noka Mentoringen inguruko jarduerak antolatu ziren eta kontu-sail honen helburua da horiek diruz laguntzea.

Bestalde, Cine-Regio Europa mailako sare bat da eta bere eginkizuna da eskualdeko zinemaren interesen alde egitea Europako erakundeen aurrean, bai eta zinematografia txikien elkarlana sustatzea ere. Horrez gain, ikus-entzunezko proiektuen garapena eta koprodukzioa sustatzen du, eskualde desberdinetako talentua eta baliabideak bateratuz, Europa osoan truke artistiko, tekniko eta sortzailea eta ezagutzen hartu-emanan pizteko xedearekin. Zinemaldiaren azken edizioan, hain zuzen, esperientziak trukatzeko jarduerak antolatu ziren eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundu nahi ditu kontu-sail honen bidez.



## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 12.000 EUROKO DIRU-LAGUNTZA ONARTU DU XISTERA ELKARTEARENTZAT, ZESTA-PUNTA INDARTZEKO GARATZEN DUEN PROGRAMA BABESTEKO**

- **Xistera elkarteak mugaren bi aldeetako 19 klub biltzen ditu eta urte osoan zehar era askotako jarduerak sustatzen ditu**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak 12.000 euroko diru-laguntza zuzena onartu du, bere gaurko saioan, Xistera elkartearentzat. Kontu-sail honen helburua da 19 talde biltzen dituen irabazi asmorik gabeko entitate honek urtero garatzen duen programa diruz laguntzea, helburua delarik zesta-punta biziberritzea.

Xistera elkarteak mugaren bi aldeetako klubak biltzen ditu eta urte osoan zehar era askotako jarduerak sustatzen ditu zesta-punta indartzeko helburuarekin. Aurtengo proiektuaren ardatzak honako hauek dira:

- Haurrak zesta-puntara erakartzea, ikastegien laguntzarekin eta zesta-eskolen bidez.
- Zesta-puntako klubak indartzea, baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak klubetan jarritz.
- Gazte eta afizionatuentzat lehiaketa sortzea (zirkuitua), erakarritako kirolariak lehiaketan gustura aritu daitezen.
- Zesta-puntak nazioarte-mailan izan duen arrakasta berpiztea, beste herrialdeetako kirol-elkarteekin kolaboratuz.

Eusko Jaurlaritzaren aburuz, programa hau bat dator Euskadiko Kirolaren Legeko printzipio orokorrekin eta, ondorioz, Administrazioak ontzat eman du Xisteraren partetik jasotako eskaera, proposatutako programa laguntzea interes orokorrekoa baita.

## Segurtasuna

### **ERTZAINZAREN LAN-BALDINTZAK ARAUTZEN DITUEN ERABAKIAREN BIGARREN ALDAKETARI BURUZKO DEKRETUA ONARTU DA**

Eusko Jaurlaritzak, Segurtasun Sailak eskatuta, onartu du Ertzaintzako langileen lan-baldintzak arautzen dituen erabakiaren bigarren alaketari buruzko dekretua.

Onartutako dekretua Ertzaintzako langileen Negoziazio Mahaian Segurtasun Sailak eta Erne eta Esan sindikatuek lortutako akordioaren emaitza da. Negoziazio Mahaia 2018ko ekainaren 6an bildu zen, Brigada Mugikorra Modernizatzeko Planaren eta Zerbitzu Aktibo Modulatua inguruan jarduteko.

Akordioa 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko bada, beharrezkoa da Gobernu Kontseiluaren onarpen zehatza eta formala.

Akordioak eragina du, batik bat, Brigada Mugikorreko Unitatean eta adinaren arabera modulaturako zerbitzu aktiboaren erregulazioan.

#### **a) Brigada Mugikorreko Unitatea:**

Brigada Mugikorra modernizatzeko planaren barruan, atal klasikoa eta laguntza-atala bateratzeari ekin zaio, eta, horretarako, Unitateko lanpostuen egitura aldatu da, egitura bakarrak edukitzeko eta lana premia berrietara gehiago egokituko den moduan antolatu ahal izateko. Halaber, lanpostuen gehieneko iraunaldia erregularizatuko da, Unitate horretako langileak berritzen direla bermatzearen.

Brigada Mugikorra Modernizatzeko Planak honako aldaketa hauek ekarriko ditu:

- Unitatearen ordutegi-erregimenaren, lan-zikloen, lanaldiaren eta entrenamendu-jardueren erregulazio berria:
  - Eguneko 42 euroko produktibitate-osagarria aitortzea, gehienez 24 egunetarako eta urtean gehienez 1.000 euroko zenbatekoarekin, Brigada Mugikorreko berehalako erantzuneko zerbitzuei dagozkien zereginak egiteagatik.
  - Lan-asteetako plangintzaren barruan, entrenamenduko 16 jardunaldi egitea programatuko da. Entrenamendu horiek egin eta ebaluatu direla ziurtatuta, eguneko 37,5 euroko produktibitate-osagarria sortuko da, urtean gehienez 600 euroko zenbatekoarekin.

- Brigada Mugikorraren ordutegi-erregimenean lan egiten dutenek 180,5 orduko oporraldia izango dute.
- Lauhileko produktibitate-osagarria aitortzea —osagarri horren zenbatekoa absentismo-tasa jakin batzuk ez gainditzearen mende egongo da—.

Dekretu berriak zenbait aldaketa hartzen ditu aintzat adinaren ondorioz zerbitzu aktiboa betetzeko modulazioari buruzko tituluan.

#### **b) Adinaren arabera modulaturako zerbitzu aktiboa:**

Adinaren arabera modulaturako zerbitzu aktiboa jasotzen da urriaren 9ko 194/2012 Dekretuan, eta ahalbidetzen du Ertzaintzako langileek, fakultatiboen eta teknikarien eskalako langileek izan ezik, zerbitzu aktiboa modulatzeko aukera izatea, betiere aurreikusten diren adinak eta gainerako eskakizunak eta baldintzak betetzen direnean.

- 56 urtetik 55 urtera jaitsi da adinaren ondorioz zerbitzua betetzeko modulazioa aitortzeko adina, eta urtean 24 ordu gutxiago lan egingo da.
- Adinaren ondorioz zerbitzuaren modulazioa aitortzen zaien unitateetako langileei esleitzen zaizkien funtzioei buruzko atalak idazketa berria du.
- Gau-txandako lanaz liberatzeari dagokionez, 55 urterekin zerbitzu aktibo modulatura modu boluntarioan sartzen diren langileek gaueko txanda ere egiteko konprimisoari 59 urte bete arte eutsi beharko diote.

2019ko urtarrilaz geroztik, 56 urterekin zerbitzu aktibo modulatura sartzen direnek gaueko ordutegiko lanaz salbuesteko aukera izango dute. Kasu horretan, hurrengo urteetan, 59 urtera arte gaueko lanak egiten jarraitzearen aldeko hauta egin ahal izango dute —eguneko 49 euroko produktibitate-osagarria jasoz— edo, urtero, haien aukera hautatu ahal izango dute —kasu horretan produktibitate-osagarria eguneko 35 eurokoa izango da—.

- Zerbitzu aktibo modulaturako ordezkari langileek gaueko txandan lan egiteak eguneko 49 euro produktibitate-osagarria jasotzeko eskubidea sortuko du.

Dekretu Proiektuaren azken xedapenak ezartzen duenez, 2019ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

## Lana eta Justizia

### **GOBERNU KONTSEILUAK ONARTU DITU EPAITEGIETAN ETA AUZITEGIETAN KANPO-PRAKTIKAK EGITEKO UPV/EHUREKIN ETA DEUSTUKO UNIBERTSITATEAREKIN EGINDAKO HITZARMENAK**

María Jesús San José Lan eta Justizia sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak onartu du kanpo-praktikak epaitegietan eta auzitegietan egiteko lankidetzaz-hitzarmenak sinatzea. Hitzarmen horien bidez lankidetzan jardungo dute Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Justizia Ministerioak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, UPV/EHUK eta Deustuko Unibertsitateak.

Hitzarmen horien helburua da Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Deustuko Unibertsitateko ikasleek curriculumeko eta curriculumaz kanpoko kanpo-praktikak egitea Euskal Autonomia Erkidegoko epaitegietan eta auzitegietan. Zehazki, Justizia Administrazioaren profesionalekin lotzen diren titulazioetan graduako edo masterreko ikasketa ofizialetako praktika akademikoetan matrikulatuta dauden ikasleek egin ahal izango dituzte praktika horiek.

Bi hitzarmen horien bidez, Justiziaren arloarekin lotzen diren titulazioetako unibertsitateko ikasleei aukera eman nahi zaie jakintza teorikoak eta eduki praktikoa uztartzeko, eta, hartara, aldi akademikoa amaitutakoan, lan-munduratzera begira prestatuko dituzten gaitasunak eta trebetasunak eskuratzeko.

Kanpo-praktikak epaitegietako eta auzitegietako ordutegiarekin bateragarria den ordutegian egingo dira; bi kasuetan, horien arduradunak finkatuko ditu ordutegiak, organo jurisdikzionalaren funtzionamendurik onena aintzat hartuta. Hitzarmenek bi urte naturaleko indarraldia izango dute, BOEn argitaratzen diren egunetik hasita. Nolanahi ere, indarraldia amaitzen denean beste bi urte naturalez luzatu ahal izango dira, hitzarmenak sinatzen dituzten guztiek zehazki hala erabaki badute.

**DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DE 25 DE NOVIEMBRE “DÍA INTERNACIONAL PARA LA ELIMINACIÓN DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES”**

Con motivo del 25 de Noviembre, “Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres”, el Gobierno Vasco expresa su firme repulsa ante todas las expresiones de violencia sexista así como su compromiso con la construcción de una sociedad igualitaria libre de violencia contra las mujeres.

Consideramos absolutamente necesario recordar que la raíz de la que nace la violencia contra las mujeres es la desigualdad de mujeres y hombres, y, que, por tanto, es indispensable trabajar en igualdad para poder construir una sociedad libre de violencia contra las mujeres. Por eso decimos SÍ a las políticas de igualdad tan necesarias para prevenir la violencia sexista; decimos SÍ al derecho de chicas y chicos a socializarse y a desarrollar sus proyectos de vida sin los límites de los estereotipos y roles sexistas; decimos SÍ a promover relaciones basadas en el respeto; decimos SÍ al empoderamiento de las mujeres; decimos SÍ a la necesaria implicación de la ciudadanía con la igualdad, especialmente a la implicación de los hombres. En una palabra, decimos SÍ a la igualdad, porque no hay herramienta más eficaz para construir una sociedad libre de violencia contra las mujeres que el fomento de la igualdad de mujeres y hombres.

Por otro lado, el Gobierno en el día de hoy quiere agradecer el trabajo de las y los profesionales que desde distintos ámbitos se encargan diariamente de la atención y la protección de las mujeres que han sufrido violencia. Y en este ámbito destacamos la importancia de seguir impulsando su formación, de manera que puedan sentar las bases para que esa atención sea capaz de apoyar a las mujeres en su camino de reparación y empoderamiento.

El Gobierno recuerda que la implicación de toda la sociedad es fundamental para el abordaje de la violencia contra las mujeres y se reafirma en la implicación y el trabajo coordinado de sus distintos departamentos con Emakunde en este campo.

Finalmente, anima a la ciudadanía a que muestre su rechazo a la violencia contra las mujeres y su apoyo a las mujeres que la han sufrido participando en las distintas movilizaciones que se han convocado para el día 25 de noviembre en distintos pueblos y ciudades.

## Presidencia

### EL GOBIERNO DESTINA 35,5 MILLONES DE EUROS A 90 PROYECTOS DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

El Consejo de Gobierno ha dado hoy el visto bueno a la concesión de ayudas a 90 proyectos de cooperación para el desarrollo presentados por las ONGD vascas, que suman un total de 35,5 millones de euros.

Las ayudas a proyectos de cooperación son el principal eje de actuación del Gobierno Vasco en esta materia y hacia ellas va dirigida la mayor parte de los fondos que gestiona la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.

Con estas ayudas se financiarán proyectos en tres modalidades.

1. **Proyectos de cooperación para el desarrollo** que contribuyen a la lucha contra la pobreza en países empobrecidos del Sur. Colombia es el principal país receptor de fondos, seguido de Guatemala. A esta modalidad se destina la mayor parte de las ayudas, con un monto aproximado de 29,2 millones de euros, dirigidos a 62 proyectos.
